

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideei dagokienez, lau taldetan banatu ditugu:

- **Baliabide fisikoak:** Talde honetako garrantzitsuenak informazio prozesuetarako ekipamenduak dira, hau da, webgunea sortzeko zein egunean mantentzeko eta erosketak kontrolatzeko beharrezkoak izango diren ordenagailu, prozesadore eta antzeko guztiak. Horretaz gain, produktuak amankomunitateko edozein herritara helarazteko beharrezkoak diren garraio elementuak behar ditugu, kamionak hain zuzen ere. Jarraitzeko, hornitzaileak beharrezkoak ditugu. Alde batetik, interneteko sarbidea emango digun enpresa bat, Euskaltel, eta bestalde, amankomunitateko dendak, euren produktuak emango dizkigutenak guk bezeroei eraman ahal izateko. Amaitzeko, azpiegitura informatiko guzti hau aurrera eramateko, lokal bat behar dugu eta bertan jartzeko altzairu guztiak.
- **Baliabide intelektualak:** Gure enpresak bezeroen datu desberdinak jaso eta gorde behar dituzenez, hauek biltergiratuta izateko data baseak edukiko ditugu. Horrez gain, bitartekari bezala funtzionatzen dugun arren, enpresak bere diseinu eta logo propioa ditu, beraz, atal honetan, enpresaren marka ere sartu behar da.
- **Giza baliabideak:** Enpresa sortu dugun bostetako bakoitzak honi eskaintzeko abilidezia bat dauka:



- **Xabier Alvarez:** bere puntu sendoa sormena da. Ideia berri eta ausartak imaginatu eta sortzeko abilidezia du. Modu honetan, enpresa gizartearikin batera eguneratzen dela zihurtatuko dugu eta azken aldaketekin bat gatzela.



- **Aiert De la torre:** informatika eta webguneen inguruko ezagutza handiak ditu. Bera izango da webgunea sortzearen arduradun nagusia eta baita hau

egunean mantentzekoa ere. Xabierrek proposatzen dituen ideiak aurrera eram ahal diren ala ez aztertzeaz arduratuko da eta egin ahal bada, egiteaz.

- Narea Urresti: zenbakiekin abilidezia handia du eta ondorioz, oso ondo egiten ditu finantza lanak. Hori dela eta, bere gaitasunaz baliatuko gara enpresaren aurrekontuak egiteko, urteroko gastuak kontrolatzeko eta diruarekin zerikusia duen guztia egiteko.
- Ane Gomez: antolaketarako abilidezia du. Ondorioz, enpresaren atal desberdinak antolatzeaz eta batzeaz arduratuko da, guztia aurrera behar den bezala doala arduratuz.
- Jon Revuelta: jendearekin erlazionatzeko abilidezia du. Hori dela eta, bera izango da hornitzaileekin kontaktuan jarriko dena eta hauekin harreman onak mantentzearen arduraduna. Horrez gain, bezeroentzako arretaren parte ere izango da.
- **Finantza baliabideak**: gure finantza baliabideak bi atal nagusitan banatzen dira. Alde batetik, enpresaren sortzaileok jarritako kapitala dugu. Honekin, interneterako sarbidea eta enpresan martxan jartzeko beharrezko informazio prozesuetarako ekipamenduak erosiko ditugu. Gainerakoa ordaintzeko, lokala eta altzairuak, garraio elementuak eta abar, bankuari mailegu bat eskatuko diogu.

